

berria

«Ikasleen ekimen politikoaren aurka jo nahi du Greziako Gobernuak»

Gianna Gianulopulu • Irakaslea

MUNDUA • 13



ARITZ LOCOLA/FORU



GOTZONE SAGARDUI

EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILBURUA

«Erakutsi da txertoen arloan egokia izan zela gure erabakia, eta gutxi zabaldu da hori gizartean»

Kutsatzeak okerrera, eta txertaketa aurrera

Hego Euskal Herrian SARS-CoV-2 birusaren beste 585 kasu atzeman dituzte, daturik txarrena azken hilabetean • 103.875 herritarrek hartu dituzte txertoen bi dosiak Hegoaldean

HARIAN • 2-6

Seriea. Itxialdien itzalean (VII). Neurri muriztaileek eten labur bat eragin dute gas kutsagarrien isurketan

'Pessoak atera zuen kartzelatik Sarrionandia' estreinatuko dute gaur

Mikel Antzak idatzitako antzerki obra bat da, eta Loraldia jaialdian izango da ikusgai, Bilboko Azkuna zentroan.

KULTURA • 24

Hainbat diskriminazio mota salatuko dituzte bihar arrazakeriaren aurkako egunean

EUSKAL HERRIA • 8



Larhungo tren. Mendea betetzeko eraberritzen

BIZIGIRO • 33-39

Sturgeonen aurkako konfiantza moztia egingo dute datorren asteazkenean

Salmonden auziko ikerketa batzordeak ebatzi du Eskoziako lehen ministroak parlamentua «engainatu» zuela.

MUNDUA • 14

Euskal Hirigune Elkargoko batzarra hautetsien erdiekin egingen dute gaur

EUSKAL HERRIA • 9

GUILLAUME FAUVEAU



ARITZ LOIOLA / FOKU

«Esaten zaigu errieta egiten ari garela; ez da asmoa inondik ere»

Gotzone Sagardui • Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua

COVID-19ak mundu osoan eragin sakona izan duela orotarazten du usu Sagarduik azalpenak ematean: ezin dela uharte izan. Esan du Osasun Saila irmo ari dela birusa kontrolpean hartzeko neurrietan.

Arantxa Iraola Bilbo

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saillean, COVID-19ak eragindako pandemiaren lehen hilabeteetan, artean zer etor zitekeen antzematen ere zail zen iragan xalo hartan, Nekane Murgak izan zuen lema eramateko ardura. Iazko irailean, haren tokia Gotzone Sagarduik hartu zuen (1966, Bilbo). Argi zegoen ordurako osasun krisiaren larritasuna. Osasun Sailak Bilbon duen ordezkari hartu du BERRIA, ostegun honetan. Ezin bestela, izurriaren bilakaera erakusten duten datuen gorakada izan da hizpiderako lehen motiboa. Esperantzaz jardun du: «Garaiz

gaude geratzeko». Uste du horretarako egokiak direla egun ezarritak dauden prebentzio neurriak. «Betetzea da garrantzitsua». Epe luzera ere, halakoek ardazturiko bizi eredu batera ohitu beharra dagoela argi du: «Noiz arte jarraitu beharko dugun? Behar dugun arte; lortzen dugun arte birusa kontrolpean izatea. Intzidentzia tasa 60tik beherakoa denean gertatuko da hori, eta orduan ere neurri batzuk luzaroan mantendu beharko dira agian».

Olatu bat bestearen atzetik dator. Zer egiten da gaizki?

Birus hau ezezaguna da guztiontzat; gizartearentzat, osasun zerbitzuentzat, mundu osoarentzat.

Eta ez da Euskadin gertatzen ari den gauza bat; gorabehera horiek ez dira Euskadin bakarrik gertatzen. Horrek ez du esan nahi gauzak ezin ditugula hobeto egin, e? Baina nik uste dut gizarte guztiak ikusten duela hori: hau mundu guztian gertatzen ari dela, eta birusaren izaerak baduela eragina, hein handi batean, mugimendu horietan. Beti esan izan dugu: «Birus hau zirrikitu guztietatik sartzen da». Beste birus batzuek badituzte egoera batzuk aldaketak izateko: dela temperatura, dela urteko aroak... Honek erakutsi digu, ordea, aroek-eta gutxi eragiten diotela. Zirrikitu bat uzten bada, hortik sartzen da.

Zer ikasi du administrazioak? Non dira hobetu beharrekoak?

Asko ikasi dugu arakatzen. Aztarnari talde sendoa dugu, eta lan hori hobetuz joan da denborarekin. Ikasi dugun beste gauza bat zera da: biztanleriari gure zerbitzuak zelan eman, eta zelan ahalegindu ez bakarrik COVID-19ari aurre egiteko beharrezkoak diren zerbitzuak ematen, baizik eta osasun sistema ahalik eta ondoen mantentzen, bestelako osasun problema batzuei ere erantzuteko. Zer ikasi dugu administrazio bezala, horrez gain? Bada, ematen duela luzaroan egongo garela birusarekin, eta harekin bizitzen ikasi beharko dugula.

Zero COVID estrategien aldeko ahotsak badira, bestelakoak...

Nahiko genuke, gainerako guztiek bezala, esatea lor dezakegula zero COVID egoera. Baina bideak erakusten digu hori ez dela erraz lortzen, eta, baliabide guztiak jarrita ere, gorabeherak izaten direla. Eta ez da aitzakia bat, baina zera esan behar da: hau ez da Euskadin bakarrik gertatzen ari, eta beste guztiak zelan dauden ere kontuan hartu behar da. Irtenbide magikoren bat balego, denok jarriko genuke abian.

Aztarnarien lana aipatu duzu. Haien lana aztertuta, zer ikasi da? Non kutsatzen da jendea?

Batetik, ikasi dugu edozein zirri-

kitutatik sartzen dela birusa. Bestetik, ikasi dugu, era berean, gure defentsak bazter uzten ditugunean gertatzen direla kutsatzeak, hau da, prebentzio neurriak betetzen ez ditugunean. Hori arlo desberdinetan gerta daiteke.

Halaxe da, baina prebentzio neurriak ezartzen direnean ez al zaie batez ere erreparatzen aisialdiarekin lotutako jardueri? Ez al da inkoherentzia bat jende askorentzat alor hori hain zurrunkontrolatzea eta, esaterako, gero lan eremuan edo garrario publikoan ez sumatzea hain argi neurri horien eragina?

Gogoratu zer esan duan: neurriak erlaxatzen ditugunean edo betetzen ez ditugunean izaten dira kutsatzeak. Eskoletan, adibidez, oso ondo joan da; baina neurriak oso zorrotzak dira. Aldiz, aisialdian ezberdin portatzen gara. Eta gu ez gara ari inori errurik egózten, ezta inolako alorrik diskriminatzen ere. Baina aztarnarien bidez antzematzen duguna da erlaxatzen garenean kutsatzen garela.

Baina ematen dituzuen datuen arabera, jatorri ezezagunekoak dira kasu asko...

Jatorri ezezaguneko kasu asko daude, galdetzen bada non gertatzen. Zergatik edo zelan eman ziren galdetuta, nahiko dakigu. Ebidentzia horra: neurriak betetzen ez baditugu, kutsatu egiten gara.

Asintomatikoei testak egiten ari dira zenbait tokitan: taldekako PCRak eta, adibidez. Halakoekin hasteko planik bai?

Gu beti gaude ikusten zer gehiago egin daitekeen, eta baliabide berriak martxan jar daitezkeen ere bai. Gure zientzialariak horien jarraipena ere egiten ari dira. Baina ez dezagun ahaztu gauza bat: halako tresnek argazki finko bat ematen dute. Egun batean, eta momentu batean. Beraz, horien eraginkortasunak badu muga bat: gaur atera dugun argazkiak bihar ez digu balio. Eta gero kontuan hartu behar da, era berean, norberaren bizitzan duen eragina. Badago neke bat eta, zera: «Berritro deitu naute! Beste proba bat egin behar dut orain!». Ez da bakarrik, beraz, zer egin dezakegun: bakoitzarengan zer eragin duen ere aztertu behar da. Baina, zalantzarik gabe, ezagutu ahala, bide berriak ireki daitezke.

Zientzialariak aipatu dituzu. Uste duzu erlazio joria izan duzuela komunitate zientifikoarekin, edo elkarlanerako errezelo puntu batez aritu zaretela?

Ez nuke nik inoiz esango gure aldetik errezelo puntu bat egon denik. Momentu guztietan gu izan gara elkarrizketetan haiekin, eta oso-oso adi eman diren iritziz guzti; batzuk sistema barruan daude, beste batzuk sistematik at, baina gu ireki-irekiak egon gara iritziz guztietara. Ez bakarrik orain; beste batzuetan ere bai. Gero, iritziz ezberdinak egon daitezke, eta guk ere gure inguruan zientzialariak ditugu, eta gero hor erabakiak datoz. Batzuetan, ba-



Beste guztiak zelan dauden ere kontuan hartu behar da. Irtenbide magiko bat balego, denok jarriko genuke abian»

«Esan dute nik esan dudala herritarren %70 txertatuko ditugula udarako; nahi adina txerto badugu, hala egingo dugu»

tzuen gustukoak dira; beste batzuetan, besteen gustukoak.

Kultura zientifikoan ongi hezitako gizarte baten garrantzia argi dago. Kultura zientifikoaren irizpideei atxikita jardungo duten agintariena ere bai. Alde horretatik, erabakien zergatia azaltzean eta, komunikazioan asmatu al da? Izan dira kritikak.

Gerta daiteke diozun hori, edo gerta daiteke, era berean, orain arte ez diogula horri behar duen garrantzia eman. Egiten ibili gara, baina ez hori plazaratzen.

Bizitza errotik aldatu behar bada, horren zergatia ondo azaltzea derrigorra da, ezta?

Bai, eta, batez ere, jakitea eta buruan izatea gure gizartea heldua dela...

Bai, baina askotan dagoen sentipena da, batez ere, errieta egiten zaiola gizarteari...

Bai, kritika asko egiten zaizkigu. **Baina hori asko errepikatzen da.** Askok errepikatzen da batzuetan.

Beste batzuetan, gauzak gizarte heldu bati zuzenduz bideratzen ditugunean, kritika kontrakoa da, esanez hor ez dela dena azaltzen. Eta dena azaltzen da: azaltzen da aurrean duzunak ere ulertzen duelakoan. Izan ere, diren bezala tratatu behar dira pertsonak: haien eskumena da informazioa izatea, baina baita heldutasunez tratatuak izatea ere.

Baina usu jazo da: datuak okertu orduko nabarmentzen dira kaleko edanak, edo arau-hausteak. Seguruenera, aldagai gehiago ere badaude datuen atzean...

Beti, beti. Faktore bakar bat ez dago inoiz: inoiz ere ez. Baina admi-

nistratziotik hainbat gauza gogoratzen ditugunean, esaten zaigu errieta egiten ari garela, eta ez da hori asmoa, inondik ere. Eguntan, adibidez, nik hitz egin dut gure aztarnarietaz adierazten digutenari buruz...

Bai, esan duzu hainbat kutsatuk ez dutela ematen kontaktuen berri. Baina hor ere aldagai sozialak kontuan hartu behar dira. Prekario dagoenarentzat, umeen zaintza nola bideratu ez da kienarentzat, ez dira egoera errazak. Egiturazko arazo horiei ere erantzun beharko zaie, ezta?

Hor gauza bi esango nituzke. Batetik, konturatu behar dute zer egoeratan gauden, eta zer dagoen jokoan, eta jokoan dagoena bizitza da. Hori da garrantzitsua. Egoera ekonomiko bereziak, larriak, nik uler ditzaket, baina horien guztien gainetik bizitza dago; norberarena, eta ingurukoena. Eta, bestetik, Euskadin baditugu gizarte zerbitzu oso aurreratuak, eta badaukagu sare oso sendo bat horrelako kasuetan ere lagundu ahal izateko. Eusko Jaurlaritzaz da ari Osasun Sailean bakarrik lanean, eta badakigu egoera denak ezingo ditugula konpondu, baina neurri asko ipinita dauzkagu bidean.

Abian da txertaketa kanpaina. Bigarren dosia bermatzeko, txertoak gordetzera egin du Jaurlaritzak. Kritikak egin zaizkio. Hautu egokitzat daukazu oraino?

Erakutsi da txertoen arloan egokia izan zela gure erabakia, eta gutxi zabaldu da hori gizartearen. Ez da ikusi zelakoa izan den bilakaera. Ingurura begira, eta ez naiz ari ezer asmatzen, zelan daude beste leku batzuetan? Nik aspirina bat ematen badizut, zer nahi duzu: dosi egokia ematea, ezta?

Baina ikerketa askok diote dosi bakar batek ere babesa ematen duela, eta hori aintzat hartu duten estrategiak ere egon dira, izurriaren larritasunak hori eskatzen duela argudiatuta...

Nik ez dut kritikatu horrelako estrategiarik, inondik ere ez, gainera. Denok helburu bera dugu: ahalik eta gehien babestea gure gizarteak. Baina zer kolektibo jarri genituen aurrean? Ahulenak. Horiek babes osoa behar dute. Bestalde, guk, txertoak jartzeaz gain, bizitzen jarraitu dugu.

AstraZenecaren txertoekin eginitako txertaketak eten egin dira. Zientziaren ikuspegitik akatsa izan dela esan dute askok...

Hartu den erabakia zehurtziaren ondorioa izan da; guztiok nahi dugu txertoa segurtasunez eta eraginkortasunez eman. Batzuek esan dute ezetz, baina beste ebi-

«Eutanasiaren Legea onartuta, erronka da erantzutea erabakia hartzen dutenei»

A. Iraola

Osasun sailburuak elkarrizketa honetarako galderak erantzuten zituen bitartean, ostegunean, Espainiako Kongresuan Eutanasiaren Legea onartu zen. Ezin zen gaia albora utzi solasaldian.

Legea onartuta, Osakidetza eskaini beharreko zerbitzu bat izango da eutanasia. Prest?

Guztiok ulertzen dugu norberak bere erabakiak hartzeko aukera izan behar duela, eta osasun publikoko ardurak ditugunok lege hori betetzeko antolatuta behar ditugu gure sistemak.

Bermeen batzorde bat eratu beharko duzue prozesuen jarraipena egiteko...

Aspaldi dugu gure Etika Batzordea; hau beste kasu bat izango da,

aurrez beste lege batzuetan eskatu izan den bezala. Erronka da, behin Eutanasiaren Legea onartuta, sistemak erantzutea erabaki hori hartzen duten herritarrei.

Zaintza aringarrien kalitateari eta hedapenari begiratzeko une egokia da. Zer-nolakoak dira arta horiek Osakidetza?

Zaintza oso onak ematen ditu; baina, esango nizuke: bai profesionalen aldetik, eta bai baliabideen aldetik ere. Gure zeregina da jaiotzetik azken egunera arte osasunaren aldetik behar diren zerbitzu denak ematea.

Ondo bermatuta daude, beraz? Bai. Ez Osakidetza bere baliabideekin bakarrik emanda, gainera. Gizarte politiketako hainbat eragileren laguntzarekin ere bai. Sareko lan bikaina daukagu.



ARITZ L. GIOLA / FOKU

dentzia batzuk daude hor, edo ebidentzia izan daitezkeenak; aztertu egin behar ziren.

Zuen kalkuluen arabera, noizko taldeko immunitatea?

Noiz izango dugu nahikoa txerto? **Zuek izango dituzue kalkuluren batzuk eginda, ezta?**

Norbaitek esan du nik esan dudala herritarren %70 izango ditugula txertatuta udarako. Nahi adina txerto badugu, hala egingo dugu. Baina ikusi dugu ez direla bete aipatu diren epe luzeko zenbakiak; ez ditugu jaso horrenbeste txerto. **Uda aipatu duzu. Aurki hasiko dira loratzen ordurako asmoak. laz, normaltasun berria izeneko harekin hasi zen, eta berehala orbandu zen. Zuhurragoak izango dira aurten mezuak?**

Ez aurreikuspenak bakarrik, baita norberak egiten dituen planteamenduak ere. Denok ikasi dugu hemen ez dagoela ziurtasunik: egunetik egunera begira ikusi behar dela bilakaera: Uda? Egon gaitezen egunean egunekoan; etorriko dira etorri beharrekoak. **Izan dira eskandaluak krisian, osasun sistemako arduradunen portaera desegokiak. Horiek izan dituzu momentu zailenak?** Egunetik egunera, erronka bera da: lehenbailehen bideratzea pandemia Euskadin, eta ahalik eta ondoen babestea biztanleak. **Halakoez ez dute laguntzen gizartearengana ondo heltzen...** Lanean egoteak laguntzen du, erne egoteak. Hortik urruntzen gaituen ezerk ez du laguntzen.